



CSCEEK GK

Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

TXOSTENNA 2022



Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

“Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (CSCE-EKGGK) kooperatibismoa sustatu eta zabaltzea bermatuko duen topaketa-organoa da, eta euskal herri-administrazioen aholkulari kooperatiba-gaietan.

Halaber, balio eta printzipio kooperatiboak onartu, defenditu, sustatu eta zabalduku ditu”.

Gaur egun, bere antolaketa eta funtzionamenduari buruzko gaiak “Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolamendu eta Jarduera Araudiak” arautzen ditu (EHAA, 55.a, 2000-03-20koa).

Egoitza soziala:

Reyes de Navarra, 51

01013 GASTEIZ

Tfnoa. 945 121 155

info@kooperatibenkotseilua.eus

www.kooperatibenkotseilua.eus



CSCEEK GK

Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

TXOSTENA 2022



2022a definitu ahal izateko hitz bat badago, akordioa da hitz hori. Urte ilusionagarria izan delako, harremanak indartu direlako, baina aliantza berriak ere sortu direlako, kooperatibismoa bultzatzeko helburu komunarekin, kooperatibismoa jarduera ekonomikoaren ildoetan eta politika publikoetan presente egon dadin.

Erakunde laguntzaileekin egin diren akordio ezagunei, esaterako, Konfekoekin, euskal unibertsitateetako Ikasketa Kooperatiboekin, Institutuekin, Elkar Lanekin eta Elkargirekin, eta ALEREkin ere egindakoei beste hitzarmen batzuk batu zaizkie, jarduera ekonomikoko beste sektore batzuetan kooperatibismoa bultzatzeko asmoarekin egindako hitzarmenak, alegia. Erabilera lagapeneko etxebizitzaren kooperatibek edo kooperatiba erregimeneko energia komunitateak bultzatzeak enpresa eredu hori aberastu baino ez dute egiten.

Eta Administrazioarekin egin diren akordioak ere garrantzitsuak izan dira 2022an. Uztailean Zehapen Erregimenaren Dekreturako akordioa sinatu zen, eta Kooperatiben Legearen Erregelamendu proposamena ere egin zen, eta horrek Kontseiluak Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin duen lankidetzaren indartzen du. Baina, batez ere, aurrerapen handia eman zen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Kooperatiben Mugimenduaren arteko Asmo eta Lankidetzaren Akordiorako. CSCE-EKGKren historian hirugarren akordioa izango da. Akordioetarako urtea ez ezik, hausnartzeko eta Kontseiluaren 40. urteurrena ospatzeko urtea ere izan da 2022a. Enpresa kooperatiboaren etorkizuneko erronkei buruz hausnartu dugu, bai barruan, bai beste eragile ekonomiko eta sozial batzuen parte hartzearekin. Nazioarteko hitzorduetan egon nahi izan dugu Euskal kooperatibismoaren ordezkari gisa, hala nola ACI Batzarrean edo CIRIEC Biltzarrean. Mundu mailako erreferente garelako berresten duten ekitaldiak dira, eta kooperatibismoaren zabalkunderako eta sustapenerako lan honetan jarraitzea animatzen gaituztenak.

Norabide onean goazen jakiteko termometrorik onena kudeaketa planaren betetze maila da. Harro gaude jakitean kudeaketa planeko konpromisoen %95 baino gehiago garapen fasean daudela edo

dagoeneko eginda daudela. Baina, gainera, ez dugu ahazten falta den %5 hori, ahalik eta lasterren abian jarriko dugu-eta.

2022an, halaber, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunarekin dugun erantzukizuna erakutsi dugu. Beste pauso bat gehiago eman dugu M8a gogoratzeko egunean, kooperatiba gehiagorekin, berdintasun gehiagorekin, erreferente gehiagorekin, emakume aitzindarien adibide gehiagorekin, aurrera egiterik baino ez daukan bide honetan.

Eta agerian geratu da, halaber, ekintzailtzarekin eta gazteriarekin dugun konpromisoa. Unibertsitarioen artean egindako azterlan batek baieztatzen digu euskal gazteen balioak eta kooperatiben balioak erabat lerrokatuta daudela. Sintonia hori bultzatu behar dugu, kooperatibismoaren onerako, ekintzaileen onerako eta, azken batean, Euskadiren onerako.

Eta beste ekimen asko, memoria honetan jasota geratzen direnak eta norabide horretan jarraitzea animatzen gaituztenak, izan ere, Kontseilua jada prest dago etapa berri bati ekiteko, ilusioz beterik eta gogoz kooperatibismoaren defentsan eta sustapenean jarduteko.

Patxi Olabarria
Presidentea





1. CSCE-EKGKren osaera **9**

2. Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea **13**

2.1. Sustapena:

- 2.1.1. M8. Kooperatiba Gehiago berdintasun Gehiago.
- 2.1.2. Kooperatiben Nazioarteko Eguna.
- 2.1.3. Kooperatibismoaren etorkizuneko erronkak jardunaldia.
- 2.1.4. ACIren Batzarra Sevillan.
- 2.1.5. CIRIEC nazioarteko biltzarra.

2.2. Zabalkundea:

- 2.2.1. Azterketa soziologikoa unibertsitateko biztanleen artean.
- 2.2.2. Erein programa.
- 2.2.3. XXI. mendeko kooperatibismoaren gaineko topaketa.
- 2.2.4. 40. urteurrena ospatzeko egutegia.
- 2.2.5. EUSPOT.
- 2.2.6. Mondragon City Challenge.
- 2.2.7. Beste komunikazio ekintza batzuk.

2.3. Lankidetzak:

- 2.3.1. Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak.
- 2.3.2. Beste lankidetzak akordio batzuk.





- 3. Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea **31**
- 3.1. Aginduzko txostenen lanketa.
- 3.2. Kontsultak.
- 3.3. Zehapen araubidearen dekretua.
- 3.4. Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamenduaren proposamena.
- 3.5. Asmoen Akordioa eta lankidetzakoa.
- 3.6. Erakundeen arteko topaketak.
 - 3.6.1. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Sailaren Plan Estrategikoaren aurkezpena.
 - 3.6.2. Gizarte Ekonomiaren 2019-2021 aldiko estatistikaren aurkezpena.
 - 3.6.3. Bilera lehendakariarekin.



4. Kooperatiben Erroldako datuak **41**

- 4.1. Kooperatiba berriak.
- 4.2. Kooperatibak azkentzea Eraldaketak eta likidazioak.
- 4.3. Kooperatibak guztira.

5. Arbitraje zerbitzua: BITARTU **45**

- 5.1. Balorazioa.
- 5.2. Bitartekaritza kooperatiboko ikastaroa.
- 5.3. Jurisdikzioari buruzko topaketa.

6. Erakunde partaidetuak **53**

- 6.1. Elkar Lan, S. COOP.
- 6.2. Elkargi, SGR.

7. 2022ko ekitaldi ekonomikoa **57**

- 7.1. 2022-2024 aldiko Plan Estrategikoa.
- 7.2. Kudeaketa Planaren betetzeko maila.
- 7.3. Balantze ekonomikoa.







CSCE-EKGren osaera



Hau da EKGKren osaera 2022-12-31n:



Patxi Olabarria jn.
(Presidentea/Konfekoop)



Jokin Diaz jn.
(Presidenteordea/Eusko Jaurlaritza)



Eugenio Jimenez jn.
(Kontseilukidea/
Eusko Jaurlaritza)



Ana Camacho and.
(Kontseilukidea/
Eusko Jaurlaritza)



Joseba Mariezkurrena jn.
(Kontseilukidea/Bizkaiko Foru
Aldundia)



Iker Estensoro jn.
(Kontseilukidea/Gipuzkoako Foru
Aldundia)



Javier Hernando jn.
(Kontseilukidea/Arabako Foru
Aldundia)




Rosa Lavin and.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Iñaki Nubla jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Alejandro Elejabarrieta jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Mikel Larrea jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Pablo Durana jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)




Iñigo Albizuri jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Idurre Maortua and.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Jon Loroño jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Oier Lizarazu jn.
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Marta Enciso and.
(Kontseilukidea/Deustuko Unibertsitatea)



Ainara Udaondo and.
(Kontseilukidea/Mondragon Unibertsitatea)



Aitor Bengoetxea jn.
(Kontseilukidea/Euskal Herriko Unibertsitatea)

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko langileak

2022ko ekitaldian, pertsona hauek osatzen zuten plantilla:




Belen Balerdi and.
(Idazkari Nagusi Teknikoa)



Santiago Merino jn.
(Letradua-Aholkularia)



Ion Azpiazu jn.
(Administraria)



Kooperatibismoa
sustatzean
eta hedatzea



2.1. Sustapena

2.1.1. M8. Kooperatiba Gehiago berdintasun Gehiago

CSCE-EKKG-k eta Konfekoopak indarrak batu zituzten berriro martxoaren 8an, Emakumearen Eguna zela-eta, Gasteizko Goiuri Jauregian egin zuten ekitaldi batean, Kooperatiba Gehiago berdintasun Gehiago esloganarekin.

Topaketa horretan, parte hartze nabarmena izan zuten CSCE-EKKG-ko idazkari nagusi tekniko Belen Balerdik eta Konfekoopeko presidente Rosa Lavinek, eta kooperatibetako eta erakundeetako ordezkari asko bildu ziren bertan, hala nola Beatriz Artolazabal, Berdintasun sailburua, edo Izaskun Landaida, Emakundeko zuzendaria.

Ekitaldi hunkigarria izan zen, eta bertan aitortza egin zieten Umezaintza Haur Hezkuntzako ikastolari eta Udapa nekazaritzako elikagaien kooperatibari. Egindako ibilbideagatik emandako saria Arantza Laskurain kooperatiben munduko zuzendari ohiarentzat izan zen.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Umezaintza 1971ean sortu zen, eta Estatuko lan eremuko lehen haurtzaindegia izan zen. Auzolagun kooperatiba sortu zuten 17 emakumeen ekimena izan zen. Kontziliazio zerbitzu hori behar zuten beren seme-alabentzat, haiek lanean ari ziren bitartean. Hasieran emakume langileen seme-alabei bakarrik eskaini zitzairen arren, laster hasi ziren Mondragon osoko haurrak hartzen eta hezten. Gaur egun, Umezaintza Arizmendi Ikastolan sartuta dago, eta 0-3 eta 3-6 urteko etapa hartzen du bere baitan.

Udapa nekazaritzako elikagaien sektoreko kooperatiba bat da. 1993an sortu zen, patataren ekoizpena eta merkaturatzea berritzeko, hobetzeko eta profesionalizatzeko helburuarekin. Kooperatibaren hasieratik, berdintasuna izan da enpresa kooperatibo horren funtsezko zutabea, eta aldaketak ekarri ditu oso maskulinizatuta dagoen sektore honetan. Udapan lan egiten duten 90 pertsonetatik 42 emakumeak dira, eta horiek presentzia nabarmena dute enpresaren esparru guztietan. Kontseilu Errektorean, gaur egun, 3 emakume eta 4 gizon daude; beraz, Kontseilu Errektorean emakumeen presentzia handitzen doa, zuzendaritza postuetan bezala, une honetan lau emakume zuzendari daude-eta.





Arantza Laskurain Eroskin ekin zion kooperatiben munduan egingo zuen ibilbideari, eta han Kontsumo zuzendariaren eginkizunak bete zituen. Zuzendaritza kontseiluan kargu bat bete zuen lehen emakumea ere izan zen. Bere karrera profesionalean, Mondragon Korporazioko idazkari nagusi izan zen ondoren. Postu hori, ordura arte, soilik gizonek betetako zen. Gainera, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu zuen lehen emakumeetako bat ere izan zen, bertan Eroskiren ordezkari gisa parte hartuz, eta Hispacoop Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiben Espainiako Konfederazioko lehen presidentea.

M8ko ekitaldia osatzeko, emakume kooperatibisten testigantzak jasotzen zituzten bideoak egin ziren eta bideo horiek sare sozialetan zabaldu ziren. Kristina Pavok (EMUN), Elena Zarragak (LKS Next), Eunate Eliok (Mondragon Unibertsitatea) eta Araceli Ruiz de Alegriak (Garlan) parte hartu zuten.

2.1.2. Kooperatiben Nazioarteko Eguna

Kooperatiben Nazioarteko Eguna uztaileko lehen larunbatean da mundu osoan, eta ACI Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak egun hori ospatu zuen -2022an 100. edizioa izan zen-, Kooperatibek mundu hobe bat eraikitzen dute leloarekin. Egun garrantzitsu hori ospatzeko, CSCE-EKGK-k komunikazio kanpaina nabarmena egin zuen Euskadiko hainbat hedabidetan, ACIren mezu hori indartzeko, eta enpresa kooperatiboaren balioak nabarmetzeko. Iragarki labur, iragarki, elkarrizketa eta erreportajeen bidez, euskal kooperatibismoak orriak, minutuak eta espazio digitalak bete zituen, Euskadiko komunikabide askotan.

Noticias Taldeak hainbat orrialde berezi eskaini zion 2022ko KNEari (Kooperatiben Nazioarteko Eguna). Zehazki, hiru erreportaje eta CSCE-EKGK-ko presidenteari egindako elkarrizketa bat argitaratu zituen. Iragarki laburrak egin dira Radio Euskadin, Onda Vascan, Naiz Irratian, Goiena Taldean eta Radio Popularren. Era berean, Gara, El Correo eta

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Diario Vasco hedabide inprimatuetan ere argitaratu ziren iragarkiak. Eta Osoko Bilkurako hainbat ordezkari elkarrizketatuak izan ziren Onda Vascan, Naiz Irratian eta Radio Popularren.

Ekainaren 30ean, Kooperatiben Nazioarteko Egunaren bezperan, prentsaurreko bat egin zen Bilbon, eta bertan parte hartu zuten Patxi Olabarria Goren Kontseiluko presidentea, Rosa Lavin Konfekoopeko presidentea eta Elena Perez Barredo Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak. Hedabideekin egindako hitzordu horretan, enpresa kooperatiboen konpromisoa azpimarratu zen, Euskadiren garapenean egindako ekarpena nabarmenduta, edizio honetako leloari erreferentzia eginez argi eta garbi. Gainera, azterlan bat aurkeztu zen, non euskal autonomia erkidegoko unibertsitateek kooperatibei buruz duten ezagutza maila agerian geratzen den (azterlana zehaztasun handiagoz azalduta dago memoria honetan, aurrerago).



2.1.3. Kooperatibismoaren etorkizuneko erronkak jardunaldia

Azaroaren 30ean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 40 euskal kooperatibatako ordezkariak elkartu zituen Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean, etorkizuneko erronkak aztertzeko topaketa bat egiteko. Dinamizazioko eta partaidetzako formatu batean, kooperatibistek garai berriei berme osoz aurre egin ahal izateko funtsezkoak diren gai batzuei buruzko gogoeta egin zuten.

Kooperatibistak, XXI. mendeko balio kooperatiboak, lana ulertzeko modu berriak, kooperatiben legatua eta gaztetasuna, eta etorkizuneko negozioak izan ziren landu ziren funtsezko gaiak, eta horien gainean zuen ikuspegia eman behar izan zuen erakunde bakoitzak. Euskal kooperatibismoaren esperientzia eta historia eta haren erresilientzia gaitasuna dira jardunaldian parte hartu zuten pertsonak identifikatu zituzten indarguneak. Hala ere, esan zuten beharrezkoa zela balio kooperatiboak modu eraginkorragoan komunikatzea, egungo gazteek asko baloratzen dituzten balioak dira-eta. Topaketan parte hartu zuten kooperatibentzat, erronka demografikoa, enpresa kooperatiboen tamaina eta lana ulertzeko moduetako aldaketak dira gaur egungo testuinguru ziurgabeen aurre egin beharko zaien erronketako batzuk.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



2.1.4. ACIren Batzarra Sevillan

ACIren Batzar Nagusia 2022ko ekainaren 20an egin zen, Sevillan, lelo honekin: Kooperatibak: orain da unea! . Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa (COCETA) izan zen ekitaldi horren anfitroia, eta 60 herrialdetako 400 kooperatibista bildu ziren bertan. ACIko kideek erabaki zuten datozen lau urteetarako Ariel Guarcoren agintaldia berritzea ACIko presidente gisa. Ekitaldian, ACIko kide den COOPUkraine erakundeko presidenteari entzuteko aukera ere egon zen. Ukrainan mugimendu kooperatiboak bizi duen egoeraren berri eman zuen, eta laguntza eskatu zuen.



Nazioarteko hitzordu horretan, euskal kooperatibismoak berriro erakutsi zuen munduan erreferente bat dela, eta ezaugarri bereizgarriak dituela. Haren esperientziaren bidez eta gurea moduko hizkuntza



batekin, euskararekin, mugimendu kooperatiboaren onarpen soziala handitzea lortu da nazioartean. Eta testuinguru horretan, ohar koademo kooperatibo bat argitaratu zen, enpresa egiteko beste modu bati buruzko hausnarketak eskaini ahal izateko.

2.1.5. CIRIEC nazioarteko biltzarra

Ekainean, halaber, CIRIEC - Ekonomia Publiko, Sozial eta Kooperatiboari buruzko Ikerketa eta Informaziorako Nazioarteko Zentroaren 33. Kongresua egin zen, Valentzian. Hitzordu horretara CSCE-EKGK-ko ordezkari bat joan zen, hainbat urtez joan gabe egon ondoren. Ekonomiako Nobelaren saridun Paul Krugmanek eman zion hasiera kongresuari, eta amaiera, berriz, Mariana Mazzucato ekonomista ospetsuak eman zion.

Kongresu horretan, 132 herrialdeko 1.217 pertsona bildu ziren, eta hainbat alderdiri buruz eztabaidatu zen gizarte ekonomiaren ikuspegitik, esaterako hauei buruz: Covid-19a, emakumeen zeregina, teknologia berriak eta telelana, bai eta gobernantza eredu berriak ere.



2.2. Zabalkundea

2.2.1. Azterketa soziologikoa unibertsitateko biztanleen artean

2021ean kooperatibismoa zenbateraino ezagutzen den jakiteko egin zen azterlan soziologikoaren jarraipen gisa, Goren Kontseiluak beste ikerketa bat eskatu zion Adimen enpresari, fokua euskal unibertsitate biztanlerian jarrita. Horretarako, 550 laguneko lagin bat egin zen martxoan, hiru euskal unibertsitateetako ikasleen artean: Mondragon Unibertsitatea, Deustu eta UPV/EHU. Eta atera zen ondorio nagusia da euskal kooperatibismoa mundu mailako erreferentea dela, eta kontsultatutako pertsonen ia %60k onartzen dutela eredu kooperatiboa etorkizuneko talentuaren zati handi batentzat erakargarria dela.

Zentzu horretan, gazteenek uste dute enpresa kooperatiboak direla lanerako gomendagarrienak, lanerako aukerarik hoberenak, kalitatezko enpleguarekin eta iraunkortasunarekin lotzen dituztelako. Txosten horren arabera, unibertsitateko gazte euskaldunek gaur egun bilatzen dituzten balioak ezin hobeto lerrokatuta daude balio kooperatiboekin.

Goren Kontseiluak asko baloratzen du ondorio hori gazteengan ilusioa piztu, eta gazteak erakarri eta kooperatibismora, ekintzaitza kolektibora eta enpresa egiteko beste modu batera hurbiltzeko erronkari aurre egiteko orduan. Izan ere, enpresa kooperatiba berrien etorkizuna euskal unibertsitateetako geletan dago une honetan. Eta, ikerketa azterlanak adierazten duen bezala, unibertsitateko gazteen %74k enpresa kooperatiboari buruzko ezagutza nahikoa dute, eta haientzat kooperatibak dira, hain zuzen ere, beste figura juridiko mota batzuk baino ezagunagoak, sozietate anonimoak edo sozietate mugatuak baino ezagunagoak, esaterako. Gainera, adierazgarria da unibertsitateko lehen urteetan are ezagunagoak direla, eta gizarte eta lege zientzietako ikasleek zientzia puruetakoek baino gehiago ezagutzen dituztela.



2.2.2. Erein programa

Ekimena 2022an jarri zen abian, kooperatibismoaren kontzeptu batzuk zabaltzeko eta kooperatibismoaz gehiago jakiten laguntzeko. Lehen fasean bederatzi bideo grabatu dira. Prestakuntzarako material gisa pentsatu dira, eta euskal kooperatibismoaren ekosistema osatzen duten erakundeak azaltzeko balio dezakete. Ondoren, bideoen protagonista izan diren pertsonak eta haien erakundeak azaltzen dira, bai eta landu diren gaiak ere:

Rosa Lavín (Konfekoop):

Zer da Konfekoop?

Ander Etxeberria (Mondragon Korporazioa):

Arrasateko esperientzia kooperatiboa

Marta Enciso (Deustua), Ainara Udaondo (Mondragon Unibertsitatea), Aitor Bengoetxea (Euskal Herriko Unibertsitatea):

Hiru euskal unibertsitateetako institutu kooperatiboak

Iñaki Nubla (Elkar-Lan):

Zer da Elkar-Lan?

Javier Sanz (Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua):

Zer da BITARTU?

Oihana García (LKS Next Legal):

Zer da kooperatiben araubide ekonomikoa?

Beñat Salaberria (LKS Next Legal):

Kooperatibaren gobernantza organoak

Mirene Arri (Elkar-Lan):

Kooperatibismoaren sarrera

Iñigo Iñurrategi (Mondragon Korporazioa):

Bazkideak, eskubideak eta betebeharrak



2.2.3. XXI. mendeko kooperatibismoaren gaineko topaketa

Urrian, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta Konfekooppek XXI. mendeko kooperatibismoa. Tradiziotik balio eredu berrietara izeneko jardunaldia antolatu zuten, enpresa kooperatiboek izan duten bilakaeraz hausnartzeko eta egungoaren moduko testuinguru batean ekonomiari eta enpleguari nola laguntzen ari diren ikusteko.

Topaketa horretan bi erakundeetako presidentetek parte hartu zuten: Patxi Olabarria, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko presidentea, eta Rosa Lavin, Konfekoopeko presidentea. Gainera, Juanjo Alvarezek, EHUko Nazioarteko Zuzenbideko Katedratikoak, eta Luz Rodriguezek, UCLMko Lan Zuzenbideko Katedratikoak eta Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuan Enplegu Idazkaritza izandakoak eta enplegu politika aktiboak Eusko Jaurlaritzari transferitu zizkionak, elkarrizketa bat eduki zuten.

Jardunaldian, Juanjo Alvarez eta Luz Rodriguez ados egon ziren Enpleguaren Euskal Lege berriaren bultzadak enpresa kooperatiboetara ematen dien aukeraren gainean, izan ere, biek uste zuten lege horrekin enpresa kooperatiboek parte hartu ahal izango dutela enplegu politikak definitzen eta erabakitzen dituzten organoetan.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



2.2.4. 40. urteurrena ospatzeko egutegia

2023an Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren 40 urte beteko dituela-eta, 2022aren amaieran egutegi bat argitaratu zen ospakizun horren berri emateko. Horrela, 1983an jaiotako 11 kooperatibista aukeratu ziren, Kontseilua bera jaio zen urtean jaio zirelako eta, beraz, kooperatibismoaren historiaren parte direlako. Urtarrilean izan ezik, hilabete horretan Kontseiluaren urteurrena ospatuko baita, gainerako hilabeteetan 11 emakume eta gizon izango dira protagonista, enpresa kooperatiboak pertsonengan oinarrituta daudela ikusarazteko.



2.2.5. EUSPOT

2022an, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak Euspot ekimenarekin bat egin zuen, ekimenaren babesle nagusi izanda. Euspot lehiaketa bat da, euskarazko sorkuntzaren eta publizitatearen eremuan erreferentea, eta bere hamaikagarren edizioa egiten ari zen. CSCE-EKGK-k bultzatu zuen lehiaketa hori, ikus-entzunezkoen bitartez balio kooperatiboak zabaltzen laguntzeko, ikus-entzunezkoak dira-eta gazteen artean eragin handia duen eta gazteek oso eskuragarri duten formatua. Lehiaketak, gainera, sormena eta irudimena sustatzen ditu.

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Euspot Aretxabaletako Udalak, Arteman Komunikazioak, Mondragon Unibertsitateak eta Arizmendi Ikastolak antolatzen dute, eta Bai Euskarari eta Music Libraryren laguntza du.





2.2.6. Mondragon City Challenge

Mondragon City Challengek, Ekintzailatza Kooperatiboaren Nazioarteko Txapelketak, irailean hasi zuen bere bigarren edizioa, eta 2023an jarraipena izango du. CSCE-EK GK ekimen honen antolatzaileetako bat da, eta, gainera, epaimahai profesional gisa parte hartzen du, Belen Balerdi Idazkari Nagusi Teknikoak ordezkaturatuta.





2.2.7. Beste komunikazio ekintza batzuk

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak puntualki parte hartzen du **KOOP** aldizkarian; Konfekooppek argitaratzen du aldizkaria, mugimendu kooperatiboarekin lotuta Kontseiluak egiten dituen jarduerak eta ematen dituen zerbitzuak balioesteko. 2022an, bost artikulu idatzi dira, eta artikuluak gai hauei buruzkoak izan dira: Kooperatiben Legearen glosa, M8a, Kooperatiben Nazioarteko Eguna, Bitartu eta kooperatibismoaren etorkizuneko erronkak.

DIARIO VASCOk ekintzailatza kolektiboari buruz gehigarri bat argitaratuko zuela eta, Kontseiluak bertan parte hartu zuen. Patxi Olabarria presidenteari elkarrizketa bat egin zioten, eta, elkarrizketan, Patxi Olabarriak nabarmendu zuen euskal gazteak erakartzea zela erronka, enpresa egiteko modu berri bat egin zezaten, balioekin eta gizartea eraldatzeko anbizioarekin.

CADENA SER EUSKADIren programa batean ere parte hartu zen, kooperatiba proiektu bati aurre egiteko erronkari buruz, non Berdinkidek, Caniccak eta Lan Berrik parte hartu zuten.

2.3. Lankidetzak

2.3.1. Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak

Kooperatiben sustapenerako eta hedapenerako programak garatzeko, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak erakunde laguntzaileak ditu, hala nola hauek: Konfekoop, EAEko unibertsitateetako Ikasketa Kooperatiboen Institutuak, baita Kontseilu honen partaidetzarekin osatutako erakundeak ere, hala nola Elkar Lan S. COOP., kooperatiba berriak sustatzeko, eta ELKARGI SGR, finantza abalake emateko.

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Esandako erakunde laguntzaileek jardute ildo horien garapenerako aurkeztu dituzten proposamenak aukeratu ondoren, 2022ko ekitaldian 134.852,98€ bideratu dira guztira programa hauen kofinantzaketarako:

Zk.	2022ko Jarduera / Programa	Erakundea
1	Kooperatiban Berdintasun Plana ezartzeko programa	KONFEKOOP
2	Ingelesezko gure negoziazioa hobetzeko ikastaroa	KONFEKOOP
3	Elkar Euskaraz zerbitzua	KONFEKOOP
4	E-learning plataforma	KONFEKOOP
5	Ikasleen kooperatibak	KONFEKOOP
6	Kooperatiben hezkuntzak eta prestakuntzak bazkideengan eta haien enpresa kooperatiboengan dituen ondorioak	Mondragon Unibertsitatea
7	Kooperatibismoaren erantzunak Euskadiko hiri errealitate berrien aurrean	Euskal Herriko Unibertsitatea
8	Europar Batasuneko Gizarte Ekonomiaren ekintza plana: Euskadiko mugimendu kooperatiborako Lehentasunak eta Interesak zehaztea	Deustuko Unibertsitatea
9	Kooperatiba berrien sustapena	Elkar Lan
10	Finantza abalak ematea	ELKARGI, SGR




2.3.2. Beste lankidetzak akordio batzuk

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak ALE / Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartearekin lankidetzan aritu izan da HAZIA musikala ekoizteko, elkarteak sustatuta eta Gontzal Mendibil kantariak zuzenduta. Musikalak Arizmendiarrietaren pentsamendua poesia musikatu bihurtzen du, eta 2022an taularatu zen hainbat euskal herritan.

Gainera, akordio bat sinatu da Bizikoopekin, Etxebizitza Kooperatiben Federazioarekin, hurrengo ekitaldietan, Kontseilutik erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatibak zabaltzeko, arreta Donostian garatutako lehen esperientzian jarritz: Txomin Enea.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta KREANek protokolo bat sinatu zuten, Euskadin elektrizitatea sortzeko eta kontsumitzeko erregimen kooperatiboko energia komunitateak bultzatzeko eta garatzeko lankidetzak esparru bat ezartzeko. Horrela, Kontseiluak ekimena zabaltzeko eta erakunde horien arteko lankidetzak bultzatzeko konpromisoa hartu du, baita KREANek jada abian jarri dituen ekimenetan edo Euskadin etorkizunean sortzen zaizkionetan bere lankidetzak garatu eta zabaltzeko ahal izateko ere.



Administrazioarekiko
harremana
eta administrazioari
laguntzea



Kooperatiben 11/2019 Legearen 165.1 artikulua adierazten duen bezala, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua Euskadiko administrazio publikoen aholkularitzarako eta kontsultarako erakunde publikoa da, kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako.

3.1. Aginduzko txostenen lanketa

2022an, garrantzi berezia izan dute Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektuari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Lege Aurreproiektuari buruzko bi txostenek, non CSCE-EKKG-k, kooperatibismoa hedatzeko eta sustatzeko organo goren gisa, bere proposamenak egin dituen. Enpleguaren Euskal Legearen kasuan, pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko haien eskubideak eta betebeharrak definitzen dituen eta enpleguari buruzko zerbitzuak eta horien kudeaketa zehazten dituen testu bat delako, are gehiago kooperatibek gure inguruan bereziki lagundu duten sektore batean. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legea, hezkuntza sektorearen eraldaketa egokia eta etorkizuneko aldaketetara nahitaez egokitu beharrekoa delako.

Aholku emateko erakunde publikoa den aldetik, Goren Kontseilua da euskal administrazio publikoen aholkularitzaren arloko erreferentzia kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako. Funtzio hori ekitaldi honetan egindako nahitaezko txosten horietan gauzatu da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2023. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen dekretua.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan Enpresaren Gizarte Erantzukizuna hedatzeko eta ezartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena, eta 2022rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Ukrainako gerraren eta Errusiari ezarritako zehapen ekonomikoen

Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea



ondorioz galera ekonomikoak izan dituzten gizarte ekonomiako enpresentzako ezohiko laguntzen deialdirako oinarriak onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.

- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Enpresetan laguntza teknikoa emateko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako prestakuntzarako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.
- Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, gizarte ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, gizarte ekonomiako enpresetan eta entitateetan elkarketa egiturak sendotzeko laguntzen deialdirako oinarriak onartzen dituen, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, langileek enpresetan parte hartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.
- 2022ko irailaren 14ko Agindua, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, Gizarte Ekonomian enpresek elkarren artean lankidetzan aritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.

Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea



- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Ekimenak egiteko laguntzen deialdiaren oinarrian onartzen dituen, eta 2022rako deialdia egiten duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen aurreproiektua.
- Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta enpresa horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen duen dekretua.

3.2. Kontsultak

Euskal Kooperatibismoaren eremuan, letradu aholkulariak interpretazio juridiko orokorrari buruzko hainbat kontsultari erantzun die. Hau da kontsulta horien laburpena, kooperatiba moten arabera eta landutako gaien arabera:

KONTSULTAK (Landutako gaiaren tipologia)	
Eratzea	6
Organo sozialak	37
Erregimen ekonomikoa	24
Administrazio Publikoa	10
Likidazioa	144
Eraldaketa	37
Hainbat gai	42
GUZTIRA	300

KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	165
ETXE BIZITZAK	77
IRAKASKUNTZA	50
KONTSUMOA	0
GARRAIOLARIAK	6
KREDITUA	0
NEKAZARITZA	2
GUZTIRA	300



3.3. Zehapen araubidearen dekretua

11/2019 Kooperatiben Legetik datorren aginduetako bat da euskal kooperatiben zehapen araubidea ezarriko duen dekretu bat argitaratzea. 2022ko ekitaldian, Kooperatiben Goren Kontseilua Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu da dekretu hori garatzen, non ezartzen den ikuskatzaileen kidegoak Goren Kontseilura jo dezakeela kontsultak edo zalantzak aurkezteko. Lankidetzara hori uztailean amaitu zen, eta Dekretuaren onarpenaren zain gaude.

Dekretuak zehaztu baino ez du egiten indarrean dagoen 11/2019 Legearen 160.7 artikuluan, lehen paragrafoan, azken xedapenetako laugarrenaren 3. zenbakian, ezarritakoa. Arau horrek Eusko Jaurlaritzako lan arloko eskumena duen Sailaren esku uzten zuen kooperatibetako zehapen prozeduraren gaineko araudia proposatzea, Administrazioaren zehapen araubidez, bere printzipioez eta bermeez legez aplikatu beharrekoaren arabera.

Araua Kontseiluaren partaidetza zuzenarekin landu da, eta, beraz, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin azken urteetan izan dituen lankidetzazko harreman ezagunen ondorioa da. Testuinguru horretan, testuan nabarmentzen da Kontseiluak berak ikuskatzaileen egiaztapen jardueretan parte har dezakeela, ikuskatzaileek neurriak ezartzeko errekerimendua jakinarazi behar dutela, eta, horrez gain, zehapen larrien eta oso larrien espedienteen instrukzioan esku hartu behar dutela, nahitaezko txosten baten bidez. Eta hori guztia, gainera, ahaztu gabe aipatutako esku hartzea egiten dela, hargatik eragotzi gabe Kontseiluak printzipio kooperatiboak betetzen direla zaindu behar duela oro har, batez ere bazkideen kontrol demokratikoa eta ekonomian duten parte hartzea.



3.4. Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamenduaren proposamena

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, aurrea hartuta, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legea erregelamendu bidez garatzeko proposamen bat aurkeztu du, eragile kooperatiboiei kontsulta egin ondoren.

Adierazten den bezala, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin lankidetzan hasi aurretik, Kontseilua sozietate kooperatiboiei laguntzen dieten operadore esanguratsuenekin jarri da harremanetan, haiekin bat etorritz Euskadiko Kooperatiben Legearen etorkizuneko Erregelamenduak argitu beharreko gau zehatzak eta ildo estrategikoak aurkezteko.

Nolanahi ere, Kontseiluak Kooperatiben Legearen Erregelamendua arautzen duen Dekretuaren zirriborroaren testu artikulatua prestatzen lagunduko du.

3.5. Asmoen Akordioa eta lankidetzakoa

2021ean asmoen akordioa Euskadiko Kooperatiben Mugimenduaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzarako tresna gisa berretsi ondoren, Euskadiren eraikuntza sozialean laguntzeko, Kooperatiben Goren Kontseiluak proposamen bat helarazi zion Lan eta Enplegu Sailari. Dokumentu hori Kontseiluaren historian hitzartutako hirugarrena litzateke, eta bertan kooperatiben legearen arau garapena jasotzen zen, bai eta kooperatiben jarduera oro har sendotzearen aldeko beste proposamen batzuk ere.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea eskatzen da, Euskadin ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu planak eta 2030erako Enpleguaren Esparru Estrategikoak ezartzen dituzten helburuak lortzen laguntzeko.

Euskal Kooperatiben Mugimenduak, berriz, kooperatibismoa sustatuz eta hedatuz, aukerak areagotzen lagun dezake, pertsonei

Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea



ahalbidetzen baitie epe luzera kalitatezko eta oparotasuneko enpleguak eragingo dituzten enpresa iraunkorrak sortzea, justizia eta berdintasuna lehenesten dituzten balio eta printzipioetan oinarrituta. Proposamen horrek zerikusia du euskal kooperatiben indar produktiboarekin, tokikoarekin eta endogenoarekin, eraldaketa ikuspegitik, deslokalizaziorako arriskurik gabe, eta nazioarteko eta mundu mailako erreferentziazko proiektio ezagunarekin. Horrela, euskal Kooperatiben Mugimenduak Eusko Jaurlaritzaren esku jartzen ditu bere nazioarteko sareak, Euskadiren nazioarteko proiektioari balioa emateko, Basque Country indartuz eta, horrela, proiektu berriak Euskadira erakar ditzaketen harreman interesgarriak bultzatuz.

3.6. Erakundeen arteko topaketak

3.6.1. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Sailaren Plan Estrategikoaren aurkezpena

Kontseiluko ordezkari batek plan berritzaile horren aurkezpenean parte hartu zuen, eta berritzailea da Gizarte Ekonomiako lehen Euskal Plan Estrategikoa delako, eta Gizarte Ekonomiako familia guztien ikuspegi integralarekin egin delako eta inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailen ekarpenak jasotzen dituelako. Sailen arteko plana izateak esparru integratu bat eratzen laguntzen du, inplikaturako politika eta araudien koherentzia, osagarritasuna eta koordinazioa hobetzeko.



3.6.2. Gizarte Ekonomiaren 2019-2021 aldiko estatistikaren aurkezpena


Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiaren gainean bi urtean behin egiten den Estatistikaren aurkezpenera joan zen. Estatistika 2020ko ekitaldiari zegokion, eta datu horiez gain 2021erako zifra ekonomiko nagusiak aurreratu egin ziren. Analiak ikuspegi sozioekonomiko hutsa jasotzen du, hainbat parametroren bidez, hala nola enplegua, fakturazio zifrak, lortutako emaitzak edo 2020ko ekitaldian euskal Gizarte Ekonomia osatzen duen enpresa sareak sortutako BEGa. Txostenaren bigarren zatiak ikuspegi kualitatiboagoa du, Gizarte Ekonomian gero eta garrantzitsuagoak diren hainbat alderdi aztertzen baititu, horien artean honako hauek nabarmentzen direlarik: bazkideen parte hartzea; genero berdintasuna; soldata tarreak; lan giroa; enpresa kudeaketako tresnak; talentuaren kudeaketa; harremanak eta enpresa arteko lankidetzak; berrikuntza. Dokumentu horretan kapitulu berri bat sartu da Covid krisiak Gizarte Ekonomiaren jardura ekonomiko-finantzarioan (FCES) izan duen eraginari buruz.



3.6.3. Bilera lehendakariarekin

Martxoaren 29an, Iñigo Urkullu lehendakariak, Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak lagunduta, Konfekoopeko arduradunak -Rosa Lavin presidentea eta Iñaki Nubla zuzendaria- eta Patxi Olabarria, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko presidentea, hartu zituen Lehendakaritzan. Bilera horretan, besteak beste, Euskadiko Kooperatiben Mugimenduaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko asmoen akordioa berritzea jorratu zen.





Kooperatiben Erroldako datuak




4.1. Kooperatiba berriak

2022AN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA BERRIAK, KOOPERATIBA MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	1	1	-	-
KONTSUMOA	7	-	-	7
IRAKASKUNTZA	1	-	-	1
GIZARTERATZEA	1	-	1	-
MISTOAK	1	1	-	-
ENPRESA ZERBITZUAK	4	-	2	2
LAN ELKARTUA	135	19	55	61
GARRAIOAK	1	-	1	-
ETXEBIZITZAK	28	1	23	4
GUZTIRA	179	22	82	75

2012-2022 Bilakaera





4.2. Kooperatibak azkentzea Eraldaketak eta likidazioak

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari legez esleitutako funtzioetako bat da kooperatiben azkentze prozesuetan -kooperatiba izateari uzteko prozesuetan- esku hartzea. Esku hartze hori eraldaketa sozietarioak homologatzeko edo kooperatibak likidatzeko espedienteak izapidetuz gauzatzen da. Zentzu horretan, 2022an kooperatiba eraldatu eta beste formula juridiko bihurtzeko 12 espedienteri buruzko akordioak hartu dira, bai eta likidazioen 64 espedienteri buruzkoak ere.

Bi kasuetan Kontseilutik esku hartuta, 11/2019 Legean hala jasota baitago, bermatuta geratzen da funts banaezinak eta likidazio prozesuetako azken emaitza ere Kontseiluaren esku jartzea. Zentzu horretan, kopuru horiek Kontseiluaren esku jarri ondoren, kooperatibismoa sustatzeko eta zabaltzeko erabiltzen dira.

Lehen aipatutako espedienteetan esku hartzeagatik, guztira, 954.744 € itzuli dira.

LIKIDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	43
ETXEBIZITZAK	19
NEKAZARITZA	1
KONTSUMOA	1
GUZTIRA	64

ERALDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	7
ETXEBIZITZAK	1
GUZTIRA	8



4.3. Kooperatibak guztira

INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA BERRIAK 2022-12-31N

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	112	54	30	28
ENPRESA TALDEAK	1	1	-	-
KONTSUMOA	47	6	15	26
KORPORAZIO KOOPERATIBOAK	1	-	-	1
KREDITUA	1	-	1	-
BIGARREN GRADUKOAK EDO GORAGOKOAK	45	9	13	23
IRAKASKUNTZA	104	13	47	44
ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK	5	3	1	1
GIZARTERATZEA	1	-	1	-
MISTOAK	46	8	10	28
ENPRESA ZERBITZUAK	52	14	12	26
ZERBITZU PROFESIONALAK	41	7	20	14
LAN ELKARTUA	2.641	337	1.256	1.048
LAN ELKARTUA - JUNIOR KOOPERATIBA	4	-	-	4
GARRAIOAK	2	-	2	-
ETXEBIZITZAK	499	97	325	77
GUZTIRA	3.602	549	1.733	1.320

INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBAK GUZTIRA, KOOPERATIBA MOTAREN ETA LURRALDEEN ARABERA, 2022-12-31N

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
KOOPERATIBAK	2.015	348	936	731
KOOPERATIBA TXIKIAK	1.587	201	797	589
GUZTIRA	3.602	549	1.733	1.320

Iturria: Euskadiko Kooperatiben Erregistroa.



Arbitraje
zerbitzua:
BITARTU



5.1. Balorazioa

Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua -BITARTU- euskal kooperatiben gatazkak ebazteko prozedurari buruzko erregelamenduan araututa dago (erregelamenduaren azken eguneraketa Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak onartu zuen, 2012ko urtarrilaren 19an – otsailaren 16ko EHAA, 34 zk.), eta zerbitzu publiko bat da, euskal kooperatibetan sortzen diren gatazkak prozedura judizialaren ordezkotresnen bitartez ebazteko.

Bizikidetzako kooperatibo guztietan sortzen diren pertsonen arteko gatazken hasierako fasean esku hartzea da, funtsean, CSCE-EKGK-k euskal kooperatibei eta kooperatibetako bazkideei ematen dien laguntza. Izan ere, hainbat metodo planteatzen ditu, hala nola kontsultei erantzutea eta kontziliazio prozesuak edo bitartekaritza prozesuak ere bai. Alternatiba eraginkorrak dira denak, baita arbitraje prozeduraren beraren alternatiba ere. BITARTUk hainbat ikuspuntutatik sustatzen du lana, esku hartzaileak izan daitezkeen beren kabuz akordio batera iristen direnak, hirugarren baten esku hartze loteslearen beharrik gabe.

BITARTUk lagundutako negoziazioaren hurbileko enpresa errealitatean finkatutako teknikak dira, berak komunikazioa erraztu eta gidatu baino ez baitu egiten. Urte batzuk dira BITARTU ildo horretan jarduten saiatzen dela.

Azken estatistikak aztertuta eta arbitraje prozeduren espedienteak nola murrizten diren egiaztatuta, esan daiteke BITARTUk egiten duen prebentzio lan hori eta gatazkak konpontzeko arbitrajeaz harago ezartzen dituen tresnak arrakastatsuek direla. Esku hartze horien emaitzak pozgarriagoak dira esku hartzen duten aldeentzat, ez baita beharrezkoa hirugarren pertsona batek biezant erabaki lotesle bat hartu behar izatea, eta horrek, askotan, gogobetetzea sortzen du, gutxienez horietakoren batentzat.

Arbitraje zerbitzua



Gatazken hasierako fasean eztabaida bideratzea ezinezkoa denean bi tresna eskaintzen ditu BITARTU zerbitzuak:

KONTSULTAK (Aztertutako gaien arabera)	
BAZKIDEEN ESKUBIDEAK	
Informazio eskubidea	27
Zigor erregimena	2
Bazkideen eta lan eskubideak	13
ORGANO SOZIALAK	
Erabakiak aurkaratzea	6
Beste gai sozietario batzuk	24
ARAUBIDE EKONOMIKOA	
Diru kopurua erreklamatzeko baja sozietarioagatik	32
Beste gai ekonomiko batzuk	12
HAINBAT	15
GUZTIRA	131

KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	43
ETXEBIZITZAK	61
IRAKASKUNTZA	15
KONTSUMOA	0
GARRAIOLARIAK	12
KREDITUA	0
NEKAZARITZA	0
GUZTIRA	131

Arbitraje zerbitzua



Hasiera batean, adiskidetzearen bidez. Aurkakotasunekoa ez den mekanismo batetik lan egiten da; horren bidez, akordioa lortu nahi da Zerbitzuan egindako agerraldi batean, eta hark akordioa proposatu ere egin dezake.

2022an, honako adiskidetze hauek egin dira:

Auzigaia (ADISKIDETZEAK)	
Jarduera kooperatibizatuaren berdintasunaren printzipioa	2
Balioak berrezartzea Etxebizitzen Kooperatibetan	1
Ekarpenak itzultzea	1
Diziplina espedientea	1
Lanpostu aldaketa	1
Diru kopurua erreklamatzeko	7
Likidazioaren aurka	1
Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratzea	1
Informazio eskubidea	7
Batzarraren deialdia	1
Bazkidea kooperatibatik irtetea	2
GUZTIRA	25



Azkenik, eta azken errekurtsio gisa, aurkakotasunekoak ez diren suntsiarazte bide guztiak agortu ondoren, bai barnean, bai Zerbitzuan bertan, gatazka modu loteslean konpon dezake BITARTUk ere.

Kasu horretan, arbitrajean, Erregelamenduak ezartzen duen prozedura arautuaren mende jartzen dira alderdiak, eta zerbitzu honen esku uzten dute arbitro bat izendatzea. Arbitro horrek erabaki loteslea hartuko du bi aldeentzat, zuzenbidea edo ekitatea aplikatuz, eta, ondorioz, eztabaida behin betiko amaituko da.

Salbuespenezko bide hori kasu hauetan erabili da:

Auzigaia (ARBITRAJEAK)	
Diru kopurua erreklamatzeko	2
Erabakia inpugnatzea	1
GUZTIRA	3

Nolanahi ere, BITARTUren esku hartzea, justizia auzitegien ordeko jardueran ez ezik, euskal kooperatibetan gatazka aztertze bidezko bokazio osoan ere ulertu behar da, bai eta gatazka hori prebenitzeko neurriak sustatzean ere, kontuan hartuta, halaber, gatazka horiek konpontzeko prestakuntza beharrak, sektoretik bertatik ondoriozta daitezkeenak, betiere, honako egitate honen esparruan: Tresna horiek lankidetzaren teorian sartzea.



5.2. Bitartekaritza kooperatiboko ikastaroa

2022an, Kooperatiben arloan Bitartekariak Prestatzeko Ikastaroa egin zen. Ikastaroa bi urtean behin egiten da, eta oraingoan 17 pertsonak parte hartu zuten. Horrek erakusten du enpresa kooperatiboek figura horretaz eta gaur egun CSCE-EKGKn dagoen Bitartekarien Erregistroaz interesa dutela.

Hain zuzen ere, esku hartzeko ildo hori garatzen jarraituko da etorkizunean, enpresa kooperatiboetan prestakuntza lan horretan sakontzeko, eta, aldi berean, euskal kooperatibetan gatazkak prebenitzeko tresnen garapena eta inplementazioa sustatzeko, gutxienez tamaina handieneko kooperatibetan. Lan horretan buru-belarri ariko da, zalantzarik gabe, CSCE-EKGK datozen urteetan, BITARTUren bidez.





5.3. Sozietate Kooperatiboei aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzko topaketa

2022ko azaroaren 21ean topaketa bat egin zen glosaren arbitro eta aktoreekin, lan elkartuko kooperatiben gatazketan aplikatu beharreko jurisdikzioari buruzko gaiak aztertzeko.

Jardunaldiaren lehen zatian zerbitzuko teknikarien urteko hitzordua egin zen, Bitartuko arbitroekin batera. Bilera horretan espedienteen prozeduraren kudeaketari lotutako gaiak jorratu ziren.

Arratsaldean, Euskadiko Kooperatiben Legearen Glosan parte hartu duten 25 adituak, ospe handiko legelariak, deitu ziren. Foro horretan Carlos Ginto Bitartuko abokatu eta arbitroak parte hartu zuen, eta "Los diferentes efectos jurídicos de la tramitación de un expediente sancionador por la vía societaria o laboral" izeneko hitzaldia eskaini zuen. Gainera, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen arau garapenaren egoera aztertu zen.







Erakunde partaidetuak



6.1. Elkar-Lan , S. Coop.

Elkar-Lan, S.Coop. bigarren mailako kooperatiba bat da, eta, 2003an eratu zenetik, bere helburua eta azken xedea izan da enpresa kooperatiboak sustatzea eta, ondorioz, enplegu kooperatiboa sortzea eta garapen ekonomikoa eta soziala lortzea.

Kooperatiba jaio zenetik, CSCE-EKGK hango bazkidea da, Konfekoekin batera, eta une honetan hiru ordezkari ditu hango Kontseilu Errektorean: Patxi Olabarria eta Pablo Durana, Osoko Bilkurako presidente eta kontseilukide diren heinean, eta Belen Balerdi, CSCE-EKGK-ko idazkari nagusia den heinean.

2022an, 137 kooperatiba sortu dira, 366 enplegu sortuta, eta horien eraketan parte hartu du Elkar-Lan S.Coop.ek. Hona hemen eratu diren kooperatiben xehakapena, Lurralde Historikoen arabera.

Lurralde Historikoa	2022an sortutako kooperatiben kopurua	2022an sortutako enpleguak
Araba	18	38
Bizkaia	62	187
Gipuzkoa	57	141
GUZTIRA	137	366



6.2. Elkargi, SGR.

22.000 euskal enpresak baino gehiagok osatzen duten Elkar Bermatzeko Sozietatea da, eta kooperatibek eta kooperatibista autonomoek presentzia handia dute bertan.

Elkargik hazteko eta eraldatzeko prozesuari eusten dio, 2022-2024 aldirako duen Plan Estrategikoan. Bertan, finantza irtenbideak emateko misioari eusten dio, eta 4 erronka estrategiko finkatzen ditu: kultura eraldaketa, hazkundera, digitalizazioa eta talentuaren kudeaketa. Bere ikuspegia: baloreak dituzten finantza zerbitzuak eskaintzea.

2022an, Elkargik 455 milioi euro baino gehiagoko operazioak finantzatu ditu, hau da, aurreko ekitaldian baino %23 eragiketa gehiago finantzatu ditu, orduan ia 3.700 eragiketa erregistratu baitziren. Erakunde hau ez da inoiz zifra horretara iritsi, krisi baten erantzun gisa izan ez balitz, hala nola 2020ko pandemia berria edo 2009ko finantza krisia.







2022ko
ekitaldi
ekonomikoa



7.1. 2022-2024 aldiko Plan Estrategikoa

2022aren hasieran onartu zen datozen hiru ekitaldietarako planteatutako plan estrategikoa. Eta dokumentuan planteatutako helburu batzuk ezartzen hasi dira, euskal gizarteak CSCE-EKGK onar dezan, balioak eta printzipioak sustatzeko eta zabaltzeko erreferentziazko entitate gisa. Eta, horrela, Euskadiren garapen iraunkorrari laguntzeko.

Kontseiluak etapa honetan dituen erronkak bost arlo handitan laburbiltzen dira:

1. Kooperatiba kopurua handitzea.
2. Kooperatibismoaren ikusgarritasuna hobetzea eta gizartean harrera hobe edukitzea.
3. Kooperatibismoari buruzko neurketarako eta ezagutzarako sistema bat garatzea.
4. Administrazio publikoen funtsezko aliatua izatea kooperatibismoaren garapenean.
5. Eginkizunen garapenean aurrera egitea eta modernizatzea.



7.2. Kudeaketa Planaren betetze maila

2022-2024 plan estrategikotik sortu den kudeaketa planaren ebaluazioa positiboa da. Planean garatu beharreko bost erronketako bakoitzean, garatu beharreko neurri batzuk zehaztu ziren, eta honako hau izan da horien betetze maila.

1. Erronka. Kooperatiba kopurua handitzea. Hamar neurri identifikatu ziren, eta horietatik %60 egin dira.

2. Erronka. Kooperatibismoaren ikusgarritasuna hobetzea eta gizartean harrera hobea edukitzea. 22 ekintzatik %72 baino gehiago egin dira.


3. Erronka. Kooperatibismoari buruzko ezagutza neurtzeko sistema bat garatzea. Lau helburuetatik hiru egin dira eta laugarrena prozesuan dago, horren %75 eginda dagoela.

4. Erronka. Administrazio publikoen funtsezko aliatua izatea kooperatibismoaren garapenean. Zazpi ekintzatatik bi bete ahal izan dira, eta gainerakoak gauzatze prozesuan daude, horien %28,57 eginda daudela.

5. Erronka. Eginkizunen garapenean aurrera egitea eta modernizatzea. Identifikatutako 20 neurrietatik, denak gauzatu dira edo gauzaten ari dira, bat izan ezik, horien %95 eginda daudela.

Laburbilduz, kudeaketa planaren konpromisoen %95 baino gehiago garapen fasean daude edo dagoeneko egin dira.

Kudeaketa Planaren betetze maila





7.3. Balantze Ekonomikoa

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak autonomia ekonomiko eta finantzarioa dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen barruan, eta bere jarduera aurrekontu horien konturako dirulaguntzen bitartez finantzatzen da batez ere.

Hona hemen 2022ko aurrekontua eta aurrekontu horretatik gauzatutakoa, salbuespenik gabe ikuskatu eta gero.

2022	Gauzatua	Aurrekontuan jasotakoa
SARRERAK	1.129.155 €	1.099.743 €
Diru sarrera arruntak	644.631 €	644.631 €
Egitura Sarrerak	452.612 €	452.612 €
Beste diru sarrera batzuk	31.912 €	2.500 €
GASTUAK	1.078.993 €	1.099.743 €
Langileen gastuak	229.014 €	226.297 €
Funtzionamendu gastuak	99.051 €	96.734 €
Zuzeneko Gauzatzeen gastuak	298.316 €	324.100 €
Gastos Estructuras	452.612 €	452.612 €
Emaitza	50.162 €	- €

Kontseilua baliabide publikoekin finantzatutako erakundea da, eta, horregatik, kontabilitate betebeharrekin eskatzen diotena baino haratago joateko erantzukizuna hartzen du, CSCE-EKGGK-k termino sozialetan egindako ekarpena aztertuz.

2022an azterlan sakon bat hasi da, merkatuko balio soziala zein merkatukoa ez dena identifikatzeko, eta azterlana 2023ko ekitaldian argitaratuko da. Beraz, datorren ekitaldiaren memorian azalduko da.